

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure ideia aurrera ateratzeko funtsezkoak dira hornitzaileak, proiektua gauzatzeko beharko ditugun materiala beraiengandik eskuratuko ditugulako. Hornitzaile hauek gure ingurukoak izaten saiatuko gara bertako ekonomiak hobetzeko. Honekin lotuta, beraiekin harreman ona edukitzea ezinbestekoa iruditzen zaigu edozein garaitan berehala eskuratzeko lehengaiak, dena kontrolpean izateko eta iruzurrik egon ez dadin.

Torlojuak, bandak, hiltzeak eta horrelako materialak lortzerako orduan Urretxun dagoen Iri-be enpresarekin kontaktatuko dugu, bertan dagoelako eta horrela herriko enpresei lagunduko diegulako, beste herrialde bateko enpresa bati eskatu beharrean, nahiz eta aukera hori merkeagoa izan.

Gure takilen piezak egiteko behar dugun metala Olaberrian dagoen SIRMET enpresatik lortuko dugu. Taldeko kide baten familiar batek bertan lan egiten duenez akordio batera iritsi gaitzke eta materiala apur bat merkeagoa lortu. Enpresa ez da euskalduna baina konfiantza ematen digunez aukeratu dugu.

Makina, materiala... toki batetik bestera furgoneta baten bitartez garraiatuko da, izan ere taldeko batek furgoneta du eta erabilgarria izango litzaiguke gauzak garraiatzeko.

Lan eremuaren inguruan, Urretxuko Mugitegi industria gunean alokatzeko moduan dagoen tailer batean kokatuko gara. Han ezartzearen zergatia zera izan da: aurretik baten batek erabilitako gune bat erabiltzea toki bat eraiki beharra ez izateko, aldi berean inguruneari lagunduz eta edozein eremu ez denez baliagarria lan hau gauzatzeko, tailer espezializatu bat sortzeko aukera izateko.

Herriko kaleetan takila instalatzeaz arduratuko dena, taldekide bat izango da, izan ere, oso abila da teknikari lanetan eta horren inguruko goi mailako ziklo bat gauzatua du.

Hori guztia hasiera batean egingo dugu, baina, enpresa oso ondo badoa, gure plantilla handituko dugu eta kontratu gehiago egin (garraiolariak, teknikariak...), izan ere ezingo dugu dena guk bakarrik aurrera eraman.





Gure langileen segurua Lagun Aroekin edukiko dugu. Enpresa honek konfiantza ematen digu eta aproposa iruditzen zaigu gure enpresarentzat.

Proiektuarekin hasi eta materiala erosi ahal izateko mailegu bat eskatuko diogu. La Caixa bankuari, gure proiektuarekin 0 tik hasiko garelako eta dirua beharko dugulako hau garatzeko aukera izateko. Bankuak emango digun diru kopurua 15.000 eurokoa izango da eta 5 urteren barruan dirua itzuli beharko diegu, interesak barne.

